

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 5.atala

DATA: 2024/05/03

GUREAN

IKASTOLAKO JAIA... BADATOR!

Motorrak berotzen hasi gara dagoeneko ikastolan. Ekainaren 2an ikastolako jaia ospatuko dugu. Egun erraldoi horretan ekintza ezberdinekin osatutako egitarau zabal bat eskainiko dizuegu eta dena primeran ateratzeko, entsegu ugari eta prestakuntza egoki bat beharrezkoak dira. Horretan gabiltza, bai ikastolako langileak, baita ikasleak ere.

Urtero, promozio bat gonbidatzen dugu festara. Aurten, 2009-10. urtekoei tokatzen zaie. Ondoko argazki honetan, norbait ezagutzen al duzue? Horrela baldin bada, esaiozue dohainik bazkaltzera etor daitekeela ikastolara ekainaren 2an. Hori da hori pagotxa! Izena emateko epea maiatzaren 13tik 24ra izango da. Helbide honetara idatzi: kagiriano@herriametsa.eus

GURE INGURUAN



'IMAGO VASCONIAE' LIBURUA

Ramon Oleagak eta Jose Mari Esparzak 'Imago Vasconiae' liburua aurkeztu dute, Euskal Herriko lehen atlas kartografikoa da.

Txalaparta argitaletxearekin batera argitaratu berri duten lan hau oso garrantzitsua da, Euskal Herria historian nola irudikatu duten erakusten baitu. Hirurehun mapa jasotzen ditu.

Orain arte ez zegoen Euskal Herria oso-osorik hartzen zuen obrarik, hau da, lurraldea historian zehar kartografian nola islatu den azaltzen zuen obrarik. "Imago Vasconiae" gure liburudendetan aurkituko duzue.



PASAI'A ITSAS FESTIBALA

NOIZ: Maiatzak 9-12

Pasaia Itsas Festibala Euskal Kostaldean ospatzen den nazioarteko izaerako itsas ekitaldi kultural garrantzitsuena da. Bi urtetik behin, itsas kultur ondareaz gozatzeko aukera eskaintzen du,



Pasaia eta gure historiaren ikuspegi ezberdin bat eskeiniz. Pasaia Itsas Festibala aukera paregabea da nabigazio tradizionalera hurbiltzeko. Gure itsas abenturarekin eta beste kultura batzuetako itsasontziekin topaketa bat egitea proposatzen digute.

INFO+:

